

Euskal AEko biztanleen batez besteko errentak % 0,9 egin du behera, 2020an

**COVID-19agatiko pandemiaren urtean, eskualdatzeen ondoriozko errentak % 14,2
egin du gora**

Euskal AEn bizi diren 18 urteko eta gehiagoko herritarrek batez beste 22.343 euroko errenta pertsonala jaso zuten 2020an; horrek erakusten du % 0,9 egin duela behera (205 euro gutxiago), aurreko urtearekin alderatuta, Eustatek emandako datuak oinarri hartuta.

Lurralde-banaketa kontuan hartuta, Gipuzkoak du batez besteko errenta pertsonal altuena (23.512€); ondoren, Bizkaiak (21.853€), eta, gero, Arabak (21.516€). 2019arekin alderatuta, Bizkaiak beherakada txikiagoa izan du (-%0,5), Gipuzkoak eta Arabak baino (-% 1 eta -% 2,2, hurrenez hurren).

insertatabla_20200

Hiriburuak kontuan hartuta, aurreko aldeak nabarmendu egiten dira; izan ere, Donostian bizi direnen batez besteko errentak (26.395€) gainditu egiten du Euskal AEko batezbestekoa 4.052 euroan; Bilbon bizi direnen (22.464€) eta Gasteizen bizi direnen (21.818€) errentak Euskal AEko batezbestekotik hurbilago daude.

Euskal AEn 2020an bizi den biztanleriaren errenta erabilgarria, zeina errenta osoari errentaren gaineko zerga eta langileen kargurako kotizazio sozialak kenduta kalkulatzen baita, 18.699€-koa da, errenta osoaren % 83,7ren baliokidea. Gipuzkoako errenta erabilgarria (19.606€) Bizkaikoa (18.345€) eta Arabakoa (17.969€) baino handiagoa izan da.

2020ko ekitaldian Euskal AEko biztanleek jasotako errenta pertsonal osoaren eraketari dagokionez, errenta pertsonalaren % 57,3 lanetik dator (12.806€, batez beste, aurreko urtean baino 757€ gutxiago), eta gainerakoa, eskualdatze edo prestazio sozialetatik % 30,8 (6.889€), jarduera ekonomikoen errentetatik % 4,4 (989€) eta % 7,4 kapital-errentetatik (1.659€, bai higigarriak bai higiezinak).

COVID-19agatiko pandemiaren urtean, errenta osoa % 0,9 jaitsi da, eta hori osagai guztietara hedatu da, eskualdatzeen ondoriozko errentan izan ezik, % 14,2 egin baitu gora.

Biztanleen arteko errentaren banaketari dagokionez, 1,5 milioi pertsona baino gehiago dira errenta motaren bat jasotzen duten 18 urteko eta gehiagoko pertsonak; alegia, % 85,4. Eta talde horietan % 14,5ek ez dute inolako diru-sarrerarik izan, 2020an. Gainera, pertsonen % 59,5ek baino gehiagok Euskal AEko batez besteko errenta baino baxuagoa izan dute –errentarik jasotzen ez dutenak barne–, eta % 10ek batezbestekoa bikoiztu baino gehiago egiten duen errenta izan dute; alegia, 44.958€-tik gorako errentak, zehatzago esateko.

Mediana, biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen errenta zein den ezartzen duen adierazlea, 17.811€-koa da; alegia, 2020an, Euskal AEko biztanle adindunen erdiek urtean 17.811€-tik gorako

batez besteko errenta pertsonala izan dute, eta beste erdiek kopuru horretatik beherako errenta jasotzen dute.

Gizonen eta emakumeen errentaren banaketak erakusten du banaketa hori desberdina dela. Euskal AEko gizonek 27.422€ jasotzen dituzte, batez beste, eta emakumeek, 17.667€, batez beste; alegia, gizonen errenta pertsonala emakumeena baino 9.755€ baino handiagoa da. Alderik handiena 70 eta 74 urte bitarteko tartean erregistratzen da; bertan, gizonen batez besteko errenta emakumeena baino handiagoa da, 16.000€ baino alde handiagokoa. Nahiz eta oraindik ere alde esanguratsuak dauden, 2020an 395€ murriztu dira alde horiek, aurreko urtearekin alderatuta. Aldi horretan, lan-errentek beherakada handiagoa izan dute gizonetan (-1.053 €) emakumeetan (-482 €) baino.

Euskal AEko familien erdiek urtean 36.312 €-tik gorako batez besteko familia-errenta izan dute 2020an


Euskal AEko batez besteko familia-errenta 45.266€-koa izan da 2020an. Familia-errenta osoa adinez nagusi diren familiako kideen errenta pertsonalak gehituta lortzen da. Euskal AEko familien batez besteko diru-sarrerak batez besteko errenta pertsonala halako bi dira, gutxi gorabehera.

Gipuzkoak du, kasu honetan ere, lurralde historikoetan familia-errenta altuena (47.734€); ondoren, Bizkaiak (44.578€), eta, gero, Arabak (42.365€). Donostia da familia-errenta altuena duen hiriburua (53.599€); ondoren, Bizkaia (45.095€), eta, azkenik, Gasteiz (42.617€).

Eskualdeen banaketari dagokionez, aldeak daude, halaber, Euskal AE eratzen duten hogeik eskualdeen artean; ez dira aldatu, 2019arekin alderatuta, goitik eta behetik nabarmenenak diren eskualdeei dagokienez. Zortzi dira batezbestekoa baino familia-errenta altuagoak dituzten eskualdeak, eta, haien artean, honako hauek dira nabarmenenak: Plentzia-Mungia (53.615€) Bizkaian; Gorbeialdea (52.137€) Araban, eta Urola Kosta (50.702€) Gipuzkoan. Baina beste hamaika eskualdeek batezbestekotik beherako familia-errentak dituzte, eta sailkapenaren azken postuan daude Bidasoa Beherea (43.837€) Gipuzkoan, Enkartzioak (38.984€) Bizkaian eta Arabako Errioxa (33.699€) Araban; azken hori da Euskal AEko familia-errenta baxuena duena.

Desberdintasunak daude familia-errentetan, hartzaile nagusiaren sexua kontuan hartuta. Hartzaile nagusia gizona bada, familiek, batez beste, 49.868€-ko diru-sarrerak dituzte, gehienak erdi- eta goi-mailako errentaren mailetan kontzentratzen direla, baina, hartzaile nagusia emakumea bada, batez besteko familia-errenta 38.576€-koa da, eta maila baxuetan kontzentratzen da; 9.001 eurotik 12.000€-ra bitarteko mailan daude familia horien % 8.

Familiak, familia-errentaren geruzaren arabera, hartzaile nagusiaren sexuari jarraiki. Euskal AE (%). 2020



Iturria: Eustat. Pertsonen eta familien errentaren estatistika

Familiak % 63 inguruk Euskal AEko batezbestekotik (45.266€) beherako errenta jasotzen dute, edo ez dute errentarik jasotzen. Azken egoera horretan daude familiak % 2,4; ez dute diru-sarrerarik izan 2020an. Familiak % 10ek, berriz, batez besteko errentaren bikoitzaren inguruko (>85.263€) errentak jaso dituzte.

Familia-errenta areagotzen doa, pixkanaka, familiara diru-sarrera gehien daraman pertsona adinean gora joan ahala, harik eta 55 eta 59 urteetara iritsi arte; adin horretan, gehieneko batez besteko errenta 57.542€-koa da. Gehiengo hori gizonetan (61.377€) eta emakumeetan (51.585€) ere banatzen da. Euskal AEko batezbestekotik gorako errenta duten familiak dira hartzaile nagusi gisa 40 eta 69 urte bitartekoa dutenak.

insertatabla_20201

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62